


NOTA LABURRAK

KULTURA ETA DOGMATISMOA



Santamaria-ren JAKIN 33-koa izan da, ziur, azkenaldian eskue-taratu dudán irakurkizunik atseginena. Hitz gutxi ta argi asko.

Zertxobaitek despistatzen du, halare. Kultura da...: eta kulturak zer izan behar lukean azaltzen da. Benetan, kulturak «ziurtasun-xistima» dirala esango nuke nik, izan beharko ez balute ere. Santamaria-ren artikulua-ren ondoren irakurtzen jarraitzea aski da hori ikusteko: Oiarzabal-en idaztitxoá.

Ziurtasun-xistima horiek, batzutan eta gehienetan, norberaren tradizioan aurkitzen dira: politikazko, zoziologiazko ta beste Nolanahiezko tradizionalistak hor. Beste zenbaiten talde ttikiago bat ausartzen da, xistima hau arbuatzen baina beste xistima bati atxikitzen zaio. Literaturan egunoroko ogia dugu hori. Erljioan klasikua izan da: katoliko izateari uzten ziona filosofia eskola batera edo protestantismora iragaten zan. Eta politikan ez da bestela. Oiarzabal-en lanean irakur ditekean Oinatibia-ren gutuna lekuko: ba da oraindik federik Israel-en (politikazko fedeari ez zaio dotrinarik falta).

Sobietarrek beren arrazoiak izango dituztela Txekoslovakia-ko zapalketa egiteko, hori ba zekien tontoenak ere. Erantzuna harrigarria da, benetan; gure denporako dotrinan ikasten genuen hura bezain harrigarri: Doctores tiene la Sta. Madre Iglesia que os sabrán responder... Nohiztik «mixterioak» politikan? Ez dakit ba, politikazko kultura «ziurtasun-xistima» bilakatu zanetik ez bada....

Nire ustean: gaurko komunismoari akatsik bat, bat bakarrik, ere ezin ikusi diona — alde onik aitortu ezin diona bezalaxe (eta ez erretorikazko aitortzarik, konkretua baino), «ziurtasun-xistima» baten kabi epelean dago. Edo-ta izugarri optimista da. Baina holakoak zenbait diran ba-daki Santamaria-k nik baino hobeto.

J. A